

AMAITZEA

Azkar ibilli bear genun Jaka irian. Iruñan atsaldean Erronkaritar autobusa artu bear nuen, illunabarrenean OREXA'N meza emateko. Egun artan, argitasun ikaragarria zan bidean. Eguzkia errege, laño baten izpirik ez. Berebilla leyoak irikita, aizea arpegian artuaz, abiadura ederrean. Erregebidean iñor ez.

Lerro auek idazten nagola ezin aztu bide ontan dagon errixka bateri buruz Txillardegi'ren eskutik artu dudan berri bat: "Santa Orosia'ren artikulua irakurri ondoren, oso interesgarri izango zaizun xetasun bat jakin dut... Amaren aldetik Sigues'koa den emakume batekin mintzo nintzen gauza auetaz (Sigues non den ba dakizu: Irunberitik (Lumbier) ekaldera. 15 edo 20 bat kilometrora eta Aragoien) eta bereala bota zizkidan puntu bitxi batzuk... Emakume au, zearo "zigoztarra" Aratues Elizalde izenekoa da. Izen guztiak omen ditu orrelakoak, eta jenderik geiena euskal liburu zahar bat arkitu zioten holtzean euskerazko meza-libururen bat ageri denez. Eta abar..." Oneraño Txillardegi azkeneko eskutitz batean (Hendaia, 1974'ko 1974'ko otsailaren 11).

Erregebidetik Yesa izeneko zingira ageri; ura urritzen, nunbait neguan elur gutxi egin du Auñamendin. Ur bazterrean bi errixkak agertzen dute burua, ezker aldera zingiraren beste aldean Ruesta, gure ondoan egi batean Tiermas, oso erri zarra Erromataren garaian ezagutzen zutena. Ikuspegia'ri bizitasun aundia ematen diote, zoritxarrez usturik daude, ormak bakarrik, ez da iñor bizi.

Gure aurrekaldean ezker eskubi Xabier delako gaztelua ta Leyre Monastegia. Aruntaxeago ezker aldera Naparroan Zangoza iri aundiko kea. Indarra ta etorkizuna Naparro aldetik dago. Amets zar batzuek bururatu zitzaizkidan. Garai bateko asmoak nituen begi aurrean. Len aipatutako Aragoiko gazteari esan niona bein: "Ondo ikasi zak euskaraz emen gure errian, Iruña'n Diputazioak irakaslentzat antolatutako ikastaldiak egin itzak eta Sangoza'ko ikastol berrira joan adi euskal irakasle bezala. Naparroan Aragoi'ko muga irekidekoak arkituko dituk. Al ba duk maisu ikasketak egin itzak garai berdinean. Karrera dunak bear ditugu erria zuzpertzeko. Zangoza'tik asi adi Aragoi'ko euskal aztarnak miatzen eta argitaratzen... Azkenean Jaka'n iriki bear ukek euskal ikastola bat". Erokeria dirudi. Ez ba; gauza berdiñak ikusi ditugu Naparroan. Amar eta amaikagarren gizaldian Naparroak Aragoia'ri bultzada aundi bat eman zion bezala gaur beste ainbeste lagundu lezaioke; Nork daki?

Ezekoa emanez, Fernando Ezkuer'ek alde egin zuen... Nere ametsa egokia iduritu zitzaidan. Amets asko ikusi ditut Naparroan egia biurtzen. Oraingoz Naparroa'ko giroa zuzpertzten naiko lan. Gerorako ere utzi bear dira gauzak egiteko. Zangoza'n euskal gogoia iriaren etorkizunarekin batean zuzpertzten dala, Aragoi'ko muga dauden bazterrak berpiztuko dira.

Ara zortzi egun amets eta erne igaro, eguzkiak ezurak berotuaz, anak ama lurra zanpatuaz, aize bizia arpegian artuaz, mendiko usaiak birikaraño sartzen, uraren eresia entzunez... Euskalerrian igeri.